



EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA EZABATZEKO NAZIOARTEKO EGUNAREN ALDEKO ADIERAZPENA

2021 eko Azaroaren 25

IRSE-EBIk, Gakoa eta Indartuz programekin batera, bat egiten du azaroaren 25eko salaketa komunitarioarekin (Emakumeen aurkako Indarkeria Desagerrarazteko Nazioarteko Eguna), gure eguneroko konpromiso zintzoa erakusteko asmoarekin, mundu osoko emakumeek jasaten dugun eta aurre egiten diogun indarkeria saihesteko eta ezabatzeke.

Emakundek bildutako datuen arabera, 2021eko apirilean eta maiatzean gora egin dute kasuek. Zehazki, maiatza izendatu da genero-indarkeriaren hilabeterik beltzena, 2012tik bigarren hiruhilekoko hildako gehien biltzen baititu. Esan beharra dago egoera tragiko hori bat datorrela alarma- egoeraren amaierarekin eta murrizketen amaierarekin. Askatasun maila handiagoa, hala nola etxeratze-agindua kentzeak edo autonomia-erkidegoen arteko mugikortasuna zabaltzeak, eragina izan dezakete hilketa matxisten hazkunderan.

Datu horiek emakumeen aurkako indarkeria ikuspegi integral eta genero- ikuspegi batetik heltzeko beharra berresten jarraitzen dute. Ikuspegi integrala, hainbat ekintza-maila behar direlako, alde batetik sozialak (hala nola sentsibilizazioa, psiko-hezkuntza edo profesionalen prestakuntza) eta bestalde pertsonalak (hala nola esku-hartze zuzena eta kasuen jarraipena). Eta generoari dagokionez, genero-ikuspegitik soilik heldu dakioke indarkeria matxistaren arazoari, sustrai soziokultural sakonenetik hasi eta gaur egungo jokabide sozial eta pertsonal modernoetan isladatzeraino.

Expositok eta Moyak (2005) dioten bezala, gizonen eta emakumeen arteko desberdintasun naturalak maila ideologiko eta sozialera eramanez dira historikoki, eta gizonezkoen nagusitasuna onartzea ekarri dute, gizonen eta emakumeen arteko desberdintasun-egoera bat erakiz. Biologiaren eta gizartearen arteko nahasketa horrek babes kultural handia du oraindik, eta gizarte-erakundeek (politikoa, erlijiosoak, hezkuntzakoak, familiakoak, etab.) babesten dute, gizonen eta emakumeen arteko botere-desberdintasun horiek dira genero-indarkeria sostengatzen duten funtsezko elementua.

Emakumeen aurkako indarkerian, eta zehazki, genero-indarkeriaren gizarte- normalkuntzan, hala nola "normaltasunaren kultura", gizarteak bere burua defendatzeko mekanismo gisa, legitimizazioa, ukazioa, ikusezintasuna eta justifikazioa ikus ditzakegu. Indarkeria matxistagatik delituak dituzten gizonekin egindako terapian ikusten ditugu defentsa-mekanismo guzti hauek. Gure testuinguru zehatzetik, esku-hartze zuzenean lan egiten dugun profesionalen aldetik, emakumeenganako indarkeriari aurre egiteko beharrezkoak diren plano guztien beharra eta garrantzia azpimarratu nahi dugu.

Horregatik, emakume guztiei zuzentzen gaitzaizkie; irtenbideren bat aurkitu dutenei, egunez egun ahalduztearen alde borrokatzen direnei, bizirauten saiatzen direnei eta salaketa jartzea lortzen dutenei. Era berean, gizonei, identitate matxista batetik deserrotzea lortzen dutenei eta berdinen, emakumeen, eskubideen alde borrokatzen dutenei ere zuzentzen gaitzaizkie.

Azaldutako arrazoi guztiengatik, aurten ere ezinbestekoa da egunero berdintasunaren alde borrokatzen duten pertsona eta erakunde sozial eta politiko guztien konpromisoa agerian uztea. Emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioak gizarte osoaren ahaleginak batzea eskatzen du; guztion artean aurre egin ahal izango diogu indarkeria horri, eta egunez egun indartu ahal izango dugu askeago egingo gaituen berdintasuna.